

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Buztintxuriko ikastetxea handitzeko lanak geratu izanari lehenbailehen soluzioa emateko lanean ari da Hezkuntza Departamendua

Departamenduaren lehentasuna da ikasle guztiak ikastetxean geratzea

Ostirala, 2017.eko maiatzak 12

Hezkuntza Departamendua goizean goizetik dabil Buztintxuriko ikastetxearen lanak geratu direlako, soluzioa bilatzen datorren ikasturtean bertako ikasle guztiak ikastetxean gera daitezzen. Lanen amaiera abuzturako aurreikusita zegoen eta 2017/18 ikasturtean erabilgarri egoteko. Lanak geratzea obrak esleitutako enpresaren arazo ekonomikoek eragin dute, enpresatik bertatik jakinarazi zaienez Hezkuntza Departamenduko teknikariei.



Solana kontseilaria Buztintxuriko ikastetxeko zuzendaritza taldearekin.

Departamenduaren lehentasuna da ikasleak ikastetxean geratzea. Hala adierazi dio Maria Solana hezkuntza kontseilariak ikastetxeko zuzendaritza taldeari, gaur bertan ikastetxera egindako bisitan. Egoeraz jabetzeko eta sortutako arazoari irtenbidea emateko gobernuak jada egin dituen urratsen berri ematen izan da han kontseilaria.

Lanak geratuta daudela egiaztatu ondoren, Hezkuntza Departamendua lanak esleitu zitzaizkion enpresarekin bilera egin du gaur bertan; izan ere, enpresatik ez baitzaio inolako jakinarazpenik helarazi Hezkuntza Departamenduari.

Era berean, idatzi bat helarazi zaio enpresari egunean zehar Departamenduari era ofizialean jakinarazi diezaion zein den enpresaren egoera, kontratuarekiko betearazpen mailari dagokionez. Erantzunik jaso ezean, kontratazio-organoak kontratuaren ebazpena baloratuko du, agindutakoa ez betetzeagatik; eta horrela ohartarazi zaio enpresari.



Buztintxuriko ikastetxe publikoa handitzeko lanak.

Kontseilariak ikastetxera bisita egin aurretik, Departamenduko

teknikariek bilera izan dute ikastetxeko zuzendaritza taldearekin; ondoren, Solana kontseilaria, Hezkuntza zuzendari orokor Roberto Perez eta Hezkuntza Azpiegituren zerbitzu-zuzendari Eneko Ardaiz, ikastetxeko lanen aurrealdean elkartu dira ikastetxeko zuzendari Ander Clementerekin.

Azpimarratzekoa da Buztintxuri ikastetxe publikoa handitzeko lanak joan zen abenduan esleitu zitzaizkiola Arbeloa Construcciones SL enpresari, 3,8 milioi eurotan (BEZ barne). Lanak urtarrilean hasi ziren. Zazpi hilabeteko exekuzio-epea eman zitzaion, hurrengo ikasturterako eraikin berria amaituta egon zedin.